

# Eliz testuak

TALDE LANEAN



## Eliz testuen itzultzaileak

Zabala da EIZIEk ohorezko bazkide izendatu dituen eliz testuen itzul-tzaileen zerrenda, baina askoz gehiago dira, zalantzarik gabe, langintza horretan era isil eta apalean bada ere eliztarren zerbitzuan aritu izan direnak. Horietako batzuk hil egin dira; beste zenbaitentzat ez da ageriko aitormenik izan.

Gauza jakina da, eliz testuen itzulpengintza ez zela Vatikanoko II. Kontzilioarekin hasi. Tradizio luzea dute, esate baterako, Bibliaren eta kristau-ikasbideen itzulpenek; eta geroago bada ere, hor daude Orixeren «*Urte Guziko Meza-Bezperak*» (1950), Jaime Kerexeta eta Santi Onaindiaren «*Eguneroko Meza*» (1963) edota Xabier Iratzederren «*Salmoak*» (1963) ere, lanik aipagarrienak izendatzearren.

Baina egia da, herri-hizkuntza biziak liturgi ospakizunetarako onartzearekin, aparteko eragina izan zuela Kontzilioak eliz testuen itzulpen-lanetan. Horregatik, Kontzilioaz geroztikako aldiari begiratuko diogu, eta nahiz eta itzulpen-langintza hau liturgi testuena baino askoz zabalagoa izan, esanahi eta zerikusi berezia izan du alor honek; beraz, liturgi liburuen itzulpen-taldea nola sortu zen eta zer lan-sistema erabili izan zuen azalduko dugu labur-labur.

1964an kokatzen da itzulpen-lan hauen hasiera. Lehenengo pausoak zalapartatsuak izan ziren; presaka emanak. Garai hartan ez zen elizbarrutiak pastoralgintzan elkarturik aritzeko tradizio edo ohiturarik. Epe laburrean eman beharrak zeuden lehenengo testu itzuliak.

Horrela, bada, elizbarruti bakoitza bere aldetik hasi zen lanean. Baina berehala sumatu zen guztien indarrak bateratu beharra. Beraz, elizbarrutiarteko itzulpen-talde bakarra sortzea eta aurrerantzean elkarrekin lan egi-tea erabaki zuten 1968an gure Gotzainek, eta hala egin dira geroztik liturgiarako testuen itzulpenak.

Lankideen izenak ematea arriskutsua izanik ere –urteen buruan aldatzen joan izan baitira–, iraupen handiena izan dutenen izenak aipatuko ditugu:

**Baionako elizbarrutitik:** Pierre Andiazabal, hasiera-hasieratik lan haue-  
tan etenik gabe aritu izan dena eta gaur egun ere horretan jarraitzen due-  
na, Jean Marie Diharce «Xabier Iratzeder», Benoit Olhagaray (†), Emile La-  
rre, Pierre Xarriton, Arnaud Indart, Michel Idiart, Jean Hiriart-Urruty (†),  
Pierre Narbaitz (†)...

**Iruñeko elizbarrutitik:** Jose M<sup>a</sup> Azpiroz (†), Migel Plaza (†), Tomas Otxan-  
dorena, Basilio Sarobe, Bixente Hernandorena (†), Martin Azpiroz, Juan  
Goikoetxea (†)...

**Bilboko elizbarrutitik:** Karmelo Etxenagusia Bilboko Gotzain Laguntzai-  
lea, Lino Akesolo (†), Mikel Zarate (†), Bitoriano Gandiaga (†), Jaime Ke-  
rexeta (†), Joan Bizente Gallastegi, Jose M<sup>a</sup> Rementeria, Lorentzo Zugaza-  
ga...

**Donostiako elizbarrutitik:** Manuel Lekuona (†), Anizeto Zugasti (†),  
Martzeloz Gaztañaga, Antonio Sarasola (†), Jose Luis Ansorena (†), Joan M<sup>a</sup>  
Lekuona, Jose M<sup>a</sup> Aranalde, Agustin Apaolaza, Jesus Gaztañaga (†), Jose  
Agustin Orbegozo, Jose Antonio Mujika, Maria R. Iparragirre, Eustasio Etxe-  
zarreta...

Lan-metodoari dagokionaz, taldeko norbaiti oinarrizko itzulpena eska-  
tzen zitzaion eta lehenengo testu hori elizbarrutiarteko taldeak elkarrekiko  
bileran aztertzen zuen esaldiz esaldi, testuaren edukiari eta euskararen ego-  
kitasunari begiraturaz, hau da, bi alderdi horiei zor zaien leialtasuna zainduduz.  
Liturgiako eta kristau-ikasbideko testuak, baita hauen itzulpenak ere, ano-  
nimoak izan ohi dira; anonimoak baita itzultzaile bakoitzak izan ditzakeen  
berezitasun eta ñabardurei dagokienez ere; testu despertsonalizatuak, ale-  
gia, eta ahalik eta hedadura handiena izango dutenak hizkuntzaren erabi-  
lera aldetik. Talde-lanak zerikusi handia izan du zeregin honetan.

## Liturgi testuen itzulpena

Elizako liturgi liburuetan erabiltzen diren testu batzuk hautatu ditugu  
eredu gisa, beraien itzulpen-historiaren adierazgarri. Sei zutabetan pareka-  
tuak doaz: jatorrizko latina, eta hiru itzulpen: gaztelaniazkoa, frantsesezkoa  
eta euskarazkoa.

Euskarazko itzulpenetik hiru bertsio ematen dira; izan ere, elkarrekin  
egindako itzulpen beraren hiru argitalpen egiten dira: bata lapurteraz, bes-  
tea bizkaieraz eta hirugarrena garai batean «gipuzkera osatua» esan ohi zen  
euskararen, Gipuzkoan, Nafarroan eta Araban erabiltzeko; azken hau hasiera  
hartan erabili zen, baina gerora eta gaur egun euskara batuan egiten dira  
argitalpenak.

Kontuan izan behar da, 1964tik 1975era bitartean eginak izan zirela  
liturgiarako testuen itzulpen-lan gehienak; argitaratu, berriz, 1976tik 1984ra

bitartean argitaratu ziren testu hauek. Honekin esan nahi da, garai hartako egoera gogoan izanik ulertu behar dela argitalpen hauen izaera; hain zuzen ere, zalantza asko zegoen urte haietan euskara batuari buruz; borrokagai gertatzen zen gizarteko hainbat gunetan; eliztarrak, bestalde, alfabetatu gabeak ziren asko eta asko; gainera, norberak irakurriz ez, baizik eta entzunez jaso beharreko testuak dira orokorrean liturgiakoak; euskara batuko zenbait formak urrutiratu eta zaildu egingo zuen euskararen ulergarritasuna, gutxi erabilia zelako oraindik hedabideetan...

Hori guztia kontuan izanik hartu zen 1975ean, argitalpenak –lehenengo aldi hartan behintzat– esandako hiru euskara-mota horietan egiteko erabakia. Gerora ikusi beharko zen nola jokatu aurrerantzean.

Hemen adibide gisa eskaintzen diren zatietan garai hartako ezaugarriak ikus daitezke; euskalkietatik euskara baturantzako erdibidean dagoen euskara-motak direla esan daiteke.

Eustasio Etxezarreta



## Eliz testuak

TALDE LANEAN

### Mezako damu otoitza

*(latinez)*

Qui missus es sanare contritos corde: Kyrie, eleison.  
Qui peccatores vocare venisti: Christe, eleison.  
Qui ad dexteram Patris sedes, ad interpellandum pro nobis: Kyrie, eleison.

*(frantsesez)*

Seigneur Jésus, envoyé par le Père pour guérir et sauver les hommes, prends pitié de nous.  
O Christ, venu dans le monde appeler tous les pécheurs, prends pitié de nous.  
Seigneur, élevé dans la gloire du Père où tu intercèdes pour nous, prends pitié de nous.

*(gaztelaniaz)*

Tú que has sido enviado a sanar los corazones afligidos: Señor, ten piedad.  
Tú que has venido a llamar a los pecadores: Cristo, ten piedad.  
Tú que estás sentado a la derecha del Padre para interceder por nosotros: Señor, ten piedad.

*(gipuzkera osatuan)*

Jesus Jauna, biotz urratuak salbatzera bidalia: erruki, Jauna.  
Jesus Jauna, pekatarietako dei egiterat etorria: Kristo, erruki.  
Jesus Jauna, gure alde otowitz egiteko, Aitaren eskuin aldean zaituguna: erruki, Jauna.

*(lapurteraz)*

Jesus Jauna, bihotz-urratuak salbatzerat igorria: urrikal, Jauna.  
Jesus Jauna, bekatoarietako dei egiterat etorria: Kristo, urrikal.  
Jesus Jauna, gure alde otowitz egiteko, Aitaren eskuinean zaituguna: urrikal, Jauna.

*(bizkaieraz)*

Jesus Jauna, biotz urratuak salbatzera bialdua: erruki, Jauna.  
Jesus Jauna, pekatarietako dei egiterat etorria: Kristo, erruki.  
Jesus Jauna, gure alde otowitz egiteko, Aitaren eskui-aldean zaituguna: erruki, Jauna.

## Mezako sagara hitzak

*(latinez)*

Qui cum Passioni voluntarie traderetur, accepit panem et gratias agens fregit, deditque discipulis suis, dicens:

Accipite et manducate ex hoc omnes: / Hoc est enim Corpus meum, / quod pro vobis tradetur.

Simili modo, postquam cenatum est, accipiens et calicem, iterum gratias agens, dedit discipulis suis, dicens:

Accipite et bibite ex eo omnes: / hic est enim calix Sanguinis mei / novi et aeterni testamenti, / qui pro vobis et pro multis effundetur / in remissionem peccatorum. Hoc facite in meam commemorationem.

*(frantsesez)*

Au moment d'être livré et d'entrer librement dans sa passion, il prit le pain, il rendit grâce, il le rompit et le donna à ses disciples, en disant :

Prenez, et mangez-en tous : ceci est mon corps livré pour vous.

De même, à la fin du repas, il prit la coupe; de nouveau il rendit grâce, et la donna à ses disciples, en disant :

Prenez, et buvez-en tous, car ceci est la coupe de mon sang, le sang de l'Alliance nouvelle et éternelle, qui sera versé pour vous et pour la multitude en remission des péchés.

Vous ferez cela, en mémoire de moi.

*(gaztelaniaz)*

El cual, cuando iba a ser entregado a su Pasión, voluntariamente aceptada, tomó pan, dándote gracias, lo partió y lo dio a sus discípulos, diciendo:

Tomad y comed todos de él, / porque esto es mi Cuerpo, / que será entregado por vosotros.

Del mismo modo, acabada la cena, tomó el cáliz, y, dándote gracias de nuevo, lo pasó a sus discípulos, diciendo:

Tomad y bebed todos de él, / porque éste es el cáliz de mi Sangre, / Sangre de la alianza nueva y eterna, / que será derramada por vosotros / y por todos los

hombres / para el perdón de los pecados.

Haced esto en conmemoración mía.

*(gipuzkera osatuan)*

Berak, saldu zutenean eta bere gogoz gurutzera zijoala, ogia artu eta, eskerrak emanez, zatitu zuen eta bere ikasleei eman zien, esanez:

Artzazue eta jan guztiok ontatik: / au nere Gorputza da-ta, / zuentzat emango dena.

Afal ondoan, berdin, kaliza arturik, berriz ere eskerrak emanez, bere ikasleei eman zien, esanez:

Artzazue eta edan guztiok ontatik: / au nere Odolaren kaliza da-ta, / itun berri eta

betikoaren Odola, / zuentzat eta guztientzat / pekatuak barkatzeko isuriko dena.

Egizue au nere oroigarri.



*(lapurteraz)*

Berak, saldu zutenean eta bere gogoz kurutzera zoala, ogia hartu-eta, eskerrak emanez, zatitu zuen eta dizipulueri eman, erranez:

Har zazue ta jan guziek huntarik: hau nere Gorputza baita zuentzat emanen dena. Afal-ondoan, berdin, kalitza harturik, berriz ere eskerrak emanez, dizipulueri eman zioten, erranez:

Har zazue ta edan guziek huntarik: / hau nere Odolaren kalitza baita, / batasun berri ta betikoaren Odola, / zuentzat eta guzientzat / bekatuak barkatzeko ixuriko dena. Egizue hau nere orroitgarri.

*(bizkaieraz)*

Berak, saldu ebenean, eta bere gogoz kurutzera joiala, ogia artu, eta eskerrak emonez, zatitu eban eta bere ikasleei emon eutsen, esanez:

Artu eizue ta jan guziok onetatik: au neure Gorputza da-ta, zuentzat emongo dana. Artu eizue ta edan guziok onetatik: / au neure Odolaren kaliza da-ta, / itun barri eta betikoaren Odola, / zuentzat eta guztientzat / pekatuak parkatzeko isuriko dana. Egizue au neure oroigarri.

## «Gure aita»

*(latinez)*

Pater noster, qui es in caelis: / sanctificetur nomen tuum; / adveniat regnum tuum; / fiat voluntas tua, sicut in caelo, et in terra.

Panem nostrum cotidianum da nobis hodie; / et dimitte nobis debita nostra, / sicut et nos dimittimus debitoribus nostris; / et ne nos inducas in tentationem; / sed libera nos a malo.

*(frantsesez)*

Notre Père qui es aux cieux, que ton nom soit sanctifié, que ton règne vienne, que ta volonté soit faite sur la terre comme au ciel.

Donne-nous aujourd'hui notre pain de ce jour. Pardonne-nous nos offenses, comme nous pardonnons aussi à ceux qui nous ont offensés. Et ne nous soumetts pas à la tentation, mais délivre-nous du Mal.

*(gaztelaniaz)*

Padre nuestro, que estás en el cielo, / santificado sea tu Nombre; / venga a nosotros tu reino; / hágase tu voluntad en la tierra como en el cielo.

Danos hoy nuestro pan de cada día; / perdona nuestras ofensas, / como también nosotros perdonamos / a los que nos ofenden; / no nos dejes caer en la tentación, y líbranos del mal.

*(gipuzkera osatuan)*

Gure Aita, zeruetan zerana: / santu izan bedi zure izena, / etor bedi zure erreinua, / egin bedi zure naia / zeruan bezala lurrean ere.

Emagizu gaur egun ontako ogia; / barkatu gure zorrak, / guk ere gure zordunei / barkatzen diegun ezkeri; / eta ez gu tentaldira eraman, / baiña atera gaitzazu gaitzetik.

*(lapurteraz)*

Gure Aita, zeruetan zirena: / saindu izan bedi zure izena; / etor bedi zure erreinua; /  
 egin bedi zure nahia / zeruan bezala lurrean ere.  
 Emaguzu gaur egun huntako ogia. / Barkatu gure zorrak, / guk ere gure zorduner /  
 barkatzen diegunaz geroz. / Eta ez gu tentaldirat ereman, / bainan atera gaitzazu  
 gaitzetik.

*(bizkaieraz)*

Gure Aita, zeruetan zarana: / santu izan bedi zure izena; / etor bedi zure erreinua; /  
 egin bedi zure naia / zeruan bezala lurrean ere.  
 Emoiaguzu gaur egun onetako ogia; / parkatu gure zorrak, / geuk ere gure zordunei /  
 parkatzen deutsegun ezker; / eta ez gu tentaldira eroan, / baiña atara gagizuz  
 gatxetik.

## **Ebanjelioa: «Zoriontasunak»**

*(latinez)*

In illo tempore: Videns Iesus turbas ascendit in montem, eta cum sedisset, accesserunt  
 ad eum discipuli eius, eta aperiens os suum docebat eos dicens:  
 Beati pauperes spiritu, / quoniam ipsorum est Regnum caelorum.  
 Beati qui lugent, / quoniam ipsi consolabuntur.  
 Beati mites, / quoniam ipsi possidebunt terram.  
 Beati qui esuriunt et sitiunt iustitiam, / quoniam ipsi saturabuntur.  
 Beati misericordes, / quia ipsi misericordiam consequentur.  
 Beati mundo corde, / quoniam ipsi Deum videbunt.  
 Beati pacifici, / quoniam filii Dei vocabuntur.  
 Beati qui persecutionem patiuntur propter iustitiam, / quoniam ipsorum est Regnum  
 caelorum.  
 Beati estis, cum maledixerint vobis, / eta persecuti vos fuerint, / et dixerint omne  
 malum adversum vos, / mentientes, propter me: / gaudete et exultate, / quoniam  
 merces vestra copiosa est in caelis.

*(frantsesez)*

Quand Jésus vit toute la foule qui le suivait, il gravit la montagne. Il s'assit, et ses  
 disciples s'approchèrent. Alors, ouvrant la bouche, il se mit à les instruire. Il disait :  
 Heureux les pauvres de coeur : le Royaume des cieus est à eux !  
 Heureux les doux : ils obtiendront la terre promise !  
 Heureux ceux qui pleurent : ils seront consolés !  
 Heureux ceux qui ont faim et soif de la justice : ils seront rassasiés !  
 Heureux les miséricordieux : ils obtiendront miséricorde !  
 Heureux les coeurs purs : ils verront Dieu !  
 Heureux les artisans de paix : ils seront appelés fils de Dieu !  
 Heureux ceux qui sont persécutés pour la justice : le Royaume des cieus est à eux !  
 Heureux serez-vous si l'on vous insulte, si l'on vous persécute et si l'on dit fausement  
 toute sorte de mal contre vous, à cause de moi. Réjouissez-vous, soyez dans  
 l'allégresse, car votre récompense sera grande dans les cieus !

*(gaztelaniaz)*

En aquel tiempo, al ver Jesús el gentío, subió a la montaña, se sentó, y se acercaron sus discípulos; y él se puso a hablar enseñándoles:  
 Dichosos los pobres en el espíritu, / porque de ellos es el Reino de los cielos.  
 Dichosos los sufridos, / porque ellos heredarán la tierra.  
 Dichosos los que lloran, / porque ellos serán consolados.  
 Dichosos los que tienen hambre y sed de la justicia, / porque ellos quedarán saciados.  
 Dichosos los misericordiosos, / porque ellos alcanzarán misericordia.  
 Dichosos los limpios de corazón, / porque ellos verán a Dios.  
 Dichosos los que trabajan por la paz, / porque ellos se llamarán «los hijos de Dios».  
 Dichosos los perseguidos por causa de la justicia, / de ellos es el Reino de los cielos.  
 Dichosos vosotros cuando os insulten, / y os persigan, / y os calumnien de cualquier modo por mi causa. / Estad alegres y contentos, / porque vuestra recompensa será grande en el cielo.

*(gipuzkera osatuan)*

Aldi artan, jende-taldea ikusirik, mendira igo zen Jesus eta, eseri zenean, bere ikasleak inguratu zitzaizkion, eta Berak onela erakusten zien:  
 Zorionekoak, gogoz beartsu direnak; / berena dute-ta zeruetako erreinua.  
 Zorionekoak otzanak; / berak izango dira-ta lurraren jabe.  
 Zorionekoak, negar egiten dutenak; / poztuak izango bait dira.  
 Zorionekoak, zuzentasunaren gose eta egarri direnak; / aseak izango bait dira.  
 Zorionekoak erukitsuak; / auek iritxiko dute-ta errukia.  
 Zorionekoak, biotzez garbi direnak; / auek ikusiko dute-ta Jaungoikoa.  
 Zorionekoak pakegilleak; / Jainkoaren seme esango bait zaie.  
 Zorionekoak, zuzenagatik erasotuak; / auena da-ta zeruetako erreinua.  
 Zorionekoak zuek, Nigatik biraoka / eta erasoka erabiltzen zaituztenean, / eta gezurretan asma-alak zuentzat esaten dituztenean; / poztu zaitezte eta alaitu, / aundia izango da-ta zuen saria zeruetan.

*(lapurteraz)*

Egun hartan, jende osteak ikustean, Jesus mendirat igan zen, eta jarri zelarrik, hurbildu zitzaizkion bere dizipuluak. Ahoa idekirik, hasi zitzaizkion orduan erakaspem emaiten, erranez:  
 Dohatsu bihotz barnez behartsu direnak, / heiena baita zeruetako Erresuma.  
 Dohatsu eztiak; / lurraz jabetuko baitira.  
 Dohatsu nigarretan direnak, / kontsolamendu izanen baitute.  
 Dohatsu zuzentasun gose eta egarri direnak, / aseka ukanen baitute.  
 Dohatsu urrikalkorrek, / urrikalmendu ardietsiko baitute.  
 Dohatsu bihotz garbiak, / Jainkoa ikusiko baitute.  
 Dohatsu baketiarrak, / Jainkoaren seme deituak izanen baitira.  
 Dohatsu zuzentasunaren gatik gaizki erabiliak direnak, / heiena baita zeruetako Erresuma.  
 Dohatsu zuek laidostatu / eta gaizki erabiliko zaituztenean, / bai eta gezurka belztuak izanen zireztenean nere gatik. / Bozkaria eta loria zaitezte, / nasaia baituzue saria zeruetan.

*(bizkaieraz)*

Aldi aretan, jente-taldea ikusirik, mendira igon eban Jesusek eta, jesarri zanean, bere ikasleak inguratu jakozan, eta Berak onan erakusten eutsen:

Zorionekoak, gogoz beartsu diranak; / eurena dabe-ta zeruetako erreinua.

Zorionekoak, otzanak; / eurak izango dira lurraren jabe.

Zorionekoak, negar egiten dabenak; / poztuak izango dira-ta.

Zorionekoak, zuzentasunaren gose ta egarri diranak; / aseak izango dira-ta.

Zorionekoak, errukitsuak; / eurak ere errukia jadetsiko dabe-ta.

Zorionekoak biotzez garbi diranak; / eurak ikusiko dabe Jaungoikoa.

Zorionekoak bake-egilleak; / Jaungoikoaren seme esango jake-ta.

Zorionekoak zuzenagaitik erasotuak; / eurena da-ta zeruetako Erreinua.

Zorionekoak zuok, Nigaitik biraoka / eta erasoka erabilten zaituenean, / eta gezurretan asmau-alak zuentzat esaten dabezanean zuen kontra; / poztu zaiteze ta alaitu, / andia izango dalako zuen saria zeruetan.

## Gorazarrea; «Jesu, dulcis memoria»

*(latinez)*

Iesu dulcis memoria,  
dans vera cordis gaudia,  
sed super mel et omnia  
eius dulcis praesentia.

Desidero te millies,  
Iesu mi, quando venies?  
Me laetum quando facies?  
Me de te quando saties?

Nec lingua valet dicere,  
nec littera exprimere:  
expertus potest credere  
quid sit Iesum diligere.

Sis, Iesu, nostrum gaudium,  
qui es futurus praemium:  
sit nostra in te gloria,  
per cuncta semper saecula.

*(Orixerena)*

Jesus, poz oroigarria,  
biotzen asegarria,  
ezti ta beste gaiñekoz  
Zure aurpegia bai poz!

Opa zaitut milla bidez,  
«noiz zatozkit, Jesus?» galdez.  
Noiz poztuko nazu beingo?  
Noiz aseko Zure onez?

Ezin esan inork agoz,  
idatziz ere ezin eman;  
gertatu zaionak daki  
Jesus maitatzea zer dan.

Zakigu poz, gure Jesus,  
gure sari zeruetan,  
zakigu Zu argitasun,  
mende guzien mendetan.

*(gipuzkera osatuan)*

Jesus, ondasun-iturri,  
ur bizi, gogoen argi,  
inungo pozgai guztien  
gaiñetik Zu maitagarri.

Opa zaitut milla bidez,  
«noiz zatozkit, Jesus?» galdez.  
Noiz poztuko nazu beingo?  
Noiz aseko zure onez?

Ezin esan inork aoz,  
idatziz ere ezin eman;  
gertatu zaionak daki  
Jesus maitatzea zer dan.

Zakizkigu poz-atsegin,  
gure sari zeruetan,  
zakizkigu argitasun,  
mende guztien mendetan.

## Gorazarrea: «Pange lingua», «Tantum ergo sacramentum»

(latinez)

Pange, lingua, gloriosi  
Corporis mysterium,  
Sanguinisque pretiosi,  
quem in mundi pretium,  
fructus ventris generosi  
Rex effudit gentium.

Nobis datus, nobis natus  
ex intacta Virgine,  
et in mundo conversatus  
sparso verbi semine,  
sui moras incolatus  
miro clausit ordine.

In supremæ nocte coenæ,  
recumbens cum fratribus,  
observata lege plene,  
cibus in legalibus,  
cibum turbae duodenarum  
se dat suis manibus.

Verbum caro, panem verum,  
Verbo carnem efficit,  
fitque sanguis Christi merum,  
et si sensus deficit,  
ad firmandum cor sincerum  
sola fides sufficit.

Tantum, ergo, sacramentum  
veneremur cernui;  
et antiquum documentum  
novo cedat ritui:  
praestet fides supplementum  
sensuum defectui.

Genitori, Genitoque  
laus et iubilatio;  
salus, honor, virtus quoque  
sit et benedictio;  
procedenti ab utroque  
compar sit laudatio. Amen.

(frantsesez)

Célébrons le divin mystère  
du Corps qui règne dans la gloire,  
le mystère du Sang précieux.  
C'est pour racheter l'univers  
et nous conduire à la victoire  
que notre Roi les offre à Dieu.

Il se donne, il naît pour nous  
d'une Vierge immaculée,  
il demeure au milieu des hommes.  
Sur terre, il sème sa parole,  
et son séjour est couronné  
par un miracle de lumière.

Pour célébrer la nuit pascale  
dans l'observance de la Loi,  
il s'attable avec ses frères ;  
à la fin du repas rituel,  
il se donne pour nourrir  
aux Douze de ses propres mains.

Verbe fait chair, par sa parole  
il fait de sa chair un vrai pain  
et son sang une boisson.  
Si rien n'apparaît à nos sens,  
pour rassurer le cœur sincère,  
la foi seule est suffisante.

Devant un si grand sacrement,  
prosternons-nous et adorons.  
Que le Testament ancien  
cède la place au nouveau,  
et que la foi nous introduise  
là où le sens ne peut aller.

A Dieu le Père et à son Fils  
louange et joie éternelles,  
salut, puissance, honneur et gloire  
et toute bénédiction.  
Louange égale au Saint-Esprit  
précédant du Père et du Fils.

*(gaztelamiaz)*

Que la lengua humana  
cante este misterio:  
la preciosa sangre  
y el precioso cuerpo.  
Quien nació de Virgen  
Rey del universo,  
por salvar al mundo,  
dio su sangre en precio.

Se entregó a nosotros,  
se nos dio naciendo  
de una casta Virgen;  
y, acabado el tiempo,  
tras haber sembrado  
la palabra al pueblo,  
coronó su obra  
con prodigio excelso.

Fue en la última cena  
—ágape fraterno—,  
tras comer la Pascua  
según mandamiento,  
con sus propias manos  
repartió su cuerpo,  
lo entregó a los Doce  
para su alimento.

La Palabra es carne  
y hace carne y cuerpo  
con palabra suya  
lo que fue pan nuestro.  
Hace sangre el vino,  
y, aunque no entendemos,  
basta fe, si existe  
corazón sincero.

Adorad postrados  
este Sacramento.  
Cesa el viejo rito;  
se establece el nuevo.  
Dudan los sentidos  
y el entendimiento:  
que la fe lo supla  
con asentimiento.

Himnos de alabanza,  
bendición y obsequio;  
por igual la gloria  
y el poder y el reino  
al eterno Padre  
con el Hijo eterno  
y el divino Espíritu  
que procede de ellos. Amén.

*(Orixerena)*

Gertaera arrigarri bat  
ospatzen dugu egun,  
Jainkoak sabel garbian  
aragi artu baitzun;  
ogi-ardo, gorputz-odol  
gugatik egin zitun.

Iñork ukitu gabeko  
Amak zigun ekarri.  
Lur ontan eman ondoren  
Jainko Aitaren berri;  
azkenik Eukaristia  
utzi zun oroigarri.

Azken gauean jarririk  
anaiekin maiean,  
Pazko-aparia janik  
legeak zion eran,  
bere eskuz Amabieri  
Bera zitzaien eman.

Itzak itzez ogi ziña  
aragi biurtzen du,  
ardoa Kristoren odol  
naiz gauden begiz itsu.  
Onez dabillan kristauak  
siñestea aski du.

Ogi zerutik jetxia  
gurtu dezagun auspez;  
opari zarra gal beza  
berri onek ordainez;  
begiz ezin dezaguna  
ikus dezagun fedez.

Aipu, omen, edertasun  
Aitari, Semeari;  
indar, dedu ta gorespen  
Biengandik danari  
asieran, orain ??? (beti?)  
eta egun egizki. Ala bedi.

(*gipuzkera osatuan*)

Kanta, Gorputz santuaren  
misterio andia,  
eta Odol santuaren  
indar salbagarria,  
gizonok salba gaitezen  
Jainkoak ixuria.

Itzak itzez bere Gorputz  
biurtzen du ogia,  
eta ardoa bere Odol.  
Orra or miraria!  
Dudaldian fedea da  
biotzaren argia.

Birjiña ta ama denak  
gugana ekarria,  
mundu ontan zabaldu du  
bere itzen azia,  
eta utzi, azkenean,  
sakramentu andia.

Sinismen-sakramentua  
gurtu dezagun auspez,  
Kristo da opari berri  
bere Gorputz-Odolez.  
Begiz ikusten ez dena,  
ikus dezagun fedez.

Azken-gauez lagunekin  
afaltzen zela ari,  
Pazko-otordua jan zuten  
jarraituz legeari;  
gero Bera eskaiñi zen  
Amabien janari.

Aintza, onespen, poz-kantu  
Aitari, Semeari;  
indar, ospe ta gorespen  
Biengandik denari,  
asieran, orain eta  
betierean beti. Amen.

## 51. [50.] Salmoa

(*latinez*)

Miserere mei, Deus, secundum magnam misericordiam tuam; / et secundum  
multitudinem miserationum tuarum, dele iniquitatem meam.  
Amplius lava me ab iniquitate mea, / et a peccato meo munda me.  
Cor mundum crea in me, Deus, / et spiritum rectum innova in visceribus meis.  
Ne proicias me a facie tua, / et spiritum sanctum tuum ne auferas a me.  
Sacrificium Deo spiritus contribulatus; / cor contritum eta humiliatum, Deus, non despicias.

(*frantsesez*)

Pitié pour moi, mon Dieu, dans ton amour, / dans ta grande miséricorde, efface mes torts.  
Lave-moi tout entier de ma faute, / et, de mon péché, purifie-moi.  
Crée-moi un coeur pur, ô mon Dieu, / remets en moi un esprit résolu.  
Ne m'écarte pas de ta présence, / ne me reprends pas ton esprit saint.  
Le sacrifice, pour Dieu, c'est un esprit brisé; / du coeur qui est brisé, broyé, ô mon  
Dieu, tu n'as pas de mépris.

(*gaztelaniaz*)

Misericordia, Dios mío, por tu bondad, / por tu inmensa compasión borra mi culpa;  
lava del todo mi delito, / limpia mi pecado.  
Oh Dios, crea en mí un corazón puro, / renuévame por dentro con espíritu firme;  
no me arrojes lejos de tu rostro, / no me quites tu santo espíritu.  
Mi sacrificio es un espíritu quebrantado; / un corazón quebrantado y humillado, tú no  
lo desprecias.

*(Orixerena)*

Urrikal zakida, Iainko, duzun erruki aundiz, / suntsi zazu nere makurra Zure amaigabeko errukiz.

Ikuz nazazu areago nere obenetik, / garbi nazazu nere gaiztakeriatik.

Bihotz garbi bat berriro antola idazu, / arnas bizkorra berriro ema-idazu.

Ez iraitzi ni Zure aurretik, / Zure arnas gurena ez kendu neri.

Nere oparia, Iauna, biotz damutua, / ez duzu urruñatuko, Iauna, biotz damutu ta murgildua.

*(gipuzkera osatuan)*

Erruki zakizkit, Jainko, duzun maitasun aundiaz, / suntsi ezazu nere makurra zure amaigabeko errukiaz.

Garbi nazazu zearo nere obenetik, / ikuz nazazu nere gaiztakeriatik.

Biotz garbi bat, Jainko, sor ezazu neregan, / arnasa bizkorra berri ezazu nere barnean.

Ez nazazu urrundu zure aurretik, / zure arnasa santua ez kendu neri.

Nere oparia, Jainko, biotz damutua: / ez duzu arbuiauko, Jainko, biotz damutu eta umildua.

## 100. [99.] Salmoa

*(latinez)*

Iubilate Domino, omnis terra, / servite Domino in laetitia; / introite in conspectu eius in exultatione.

Scitote quoniam Dominus ipse est Deus; / ipse fecit nos, et ipsius sumus, / populus eius et oves pascuae eius.

Introite portas eius in confessione, / atria eius in hymnis, / confitemini illi, benedicite nomini eius.

Quoniam suavis est Dominus; / in aeternum misericordia eius, / et usque in generationem et generationem veritas eius.

*(frantsesez)*

Acclamez le Seigneur, terre entière, / servez le Seigneur dans l'allégresse, / allez à lui avec des chants de joie.

Reconnaissez que le Seigneur est Dieu ; / il nous a faits et nous sommes à lui, / son peuple et le troupeau qu'il conduit.

Allez à ses portiques en rendant grâce, / entrez dans ses parvis avec des hymnes, / rendez-lui grâce et bénissez son nom.

Oui, le Seigneur est bon, / éternel est son amour, / sa fidélité demeure d'âge en âge.

*(gaztelaniaz)*

Aclama al Señor, tierra entera, / servid al Señor con alegría, / entrad en su presencia con vítores.

Sabed que el Señor es Dios: / que él nos hizo y somos suyos, / su pueblo y ovejas de su rebaño.

Entrad por sus puertas con acción de gracias, / por sus atrios con himnos, / dándole gracias y bendiciendo su nombre.

«El Señor es bueno, / su misericordia es eterna, / su fidelidad por todas las edades.»



*(Orixerena)*

Lurtarrak oro, egin iauzi Iaunari, / Iaunari morroi alaitsu zakiote, / Aren aurrera  
ikotika sar zaitezte.

Jakizute Iauna dala Jainko, / Berak egin gaitu, Berarenak gera, / Beraren erri ta  
larreko artalde.

Sar zaitezte Aren ateetatik gora-deika, / Aren atarietan goratzarreka, / ospa zazute,  
onetsi Aren izena.

Onbera baita Iauna, / Aren errukia betidaño, / Aren leialtasuna mendeen mendetaraño.

*(gipuzkera osatuan)*

Lurtar guztiok, egin irrintzi Jaunari, / Jaunari serbitzu alai egiozue, / Aren aurrera  
pozez oiuka sar zaitezte.

Jakizue Jauna dela Jainko, / Berak egin gaitu, Berarenak gera, / Beraren erri eta  
larreko artalde.

Sar zaitezte ateetatik eskerrak emanez, / Aren atarietan goratzarreka; / eman eskerrak,  
bedeinka Aren izena.

«Onbera bait da Jauna, / Aren maitasuna betidaño, / Aren leialtasuna mendeen  
mendetaraño.»